

Ebazpena: R 48/2024
Espedientea: 61/2021

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 23a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidentea eta Sofia Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Hauxe da hartu duten

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (ZAEA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea nork duen eskumena LEk 2016ko ekitaldian pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) konturako atxikipenak ordainarazteko (pentsioengatiko lan-etekin eta hartzeko pasiboen kontzeptuarekin eginak). Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan ari da izapidetzen 61/2021 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

- 1.-** LE borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde bat da, eta Arrasaten (Gipuzkoa) ditu helbide soziala eta fiskala.
- 2.-** LEk Langile Autonomoen Araubide Bereziaren bidez, berezko prestazioak eta Gizarte Segurantzaren Sistema Publikoarenak ordaintzen ditu, eta atxikipenak egiten ditu ordaindutako prestazioon gainean.
- 3.-** 2019ko uztailaren 23an posta elektronikoz bidalitako mezu baten bidez, GFAk bere aldeko transferentzia eskatu zion ZAEARI, LERen 2016ko ekitaldiko lan-atxikipenen kontzeptuarekin —orotara 10.123,68 euroko zenbatekoa—, ekitaldi horretan ohiko bizilekua Gipuzkoako Lurralde Historikoan zuten hartzaileei zegokielako.
- 4.-** 2020ko otsailaren 11n, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak LERi jakinarazi zion egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak abiarazi zituela 2016ko ekitaldiko lan-etekinengatiko atxikipenei loturik.
- 5.-** 2020ko urriaren 19an, ZAEAK bere ikuskapen-jarduera adostasun-aktan dokumentatu zuen, eta eskumenik ez duen administrazioan sartzeari buruzko

txostena egin zuen (administrazio erkidean edo foru-administrazioan); hala, zehaztu zuen diru-sarrerak zeudela eskumenik gabeko Administrazioan, bai GFAn, bai ZAEAn.

Jarduketa horietan, ZAEAk egiaztatu zuen, batetik, oker aitortu eta ordaindu zela 10.123,68 euroko zenbatekoa ZAEAn, Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizilekua duten hartzaileei zegokienez, eta, bestetik, oker aitortu eta ordaindu zela Gipuzkoako Foru Aldundian 24.403,20 euroko zenbatekoa, lurralde erkidean bizilekua duten hartzaileei zegokiena.

Egiaztapenaren ondoriozko saldo garbia 14.279,52 eurokoa izan zen (24.403,20 – 10.123,68). ZAEAk bidalketa eskatu zuen 2020ko azaroaren 23an, Gipuzkoako Foru Aldundiari posta elektronikoz helarazitako mezu baten bidez.

6.- 2021eko otsailaren 2an, Gipuzkoako Foru Aldundiak mezu bat igorri zion ZAEARI posta elektronikoz, eta, haren bidez, partzialki ezetsi zuen ZAEAk bidalitako bidalketa-eskaera; onetsi egin zuen 2016ko laugarren hiruhilekoari buruzko uzia eta, aldiz, ezetsi egin zituen ekitaldi horretako lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoei buruzko eskaerak, preskribatutzat jotzen baitzuen ZAEAk aldi horietarako kreditu-eskubidea.

Ezespen horrek sortu zuen, egindako inhibizio-errekerimenduaren ondoren, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren gatazka-planteamendua, eta Arbitraje Batzorde honetan izapidetu da 30/2021 espediente-zenbakiarekin.

7.- 2021eko apirilaren 27an, PFEZaren 2016ko lan-atxikipenei buruzko autolikidazioaren zuzenketa ezesten zuen ebazpen-erabakia jakinarazi zion ZAEAk Gipuzkoako Foru Aldundiari. Horrek GFAREN itzulketa-eskaera ukatzea zekarren. Akordio horretan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak berari oker ordaindutako atxikipenak aipatzen zituen (10.123,68 euro), eta ZAEAk konpentsatu egiten ditu horiek Gipuzkoako Foru Aldundiari oker ordaindutako atxikipenekin, ZAEAREN aldeko saldoa zehazteko.

8.- 2021eko ekainaren 10ean, bestalde, GFAk idatzi bat igorri zion ZAEARI, inhibizioa eskatzeko eta adieraz zezan ez zuela eskumenik 2016ko ekitaldian PFEZaren zenbatekora egindako zenbait atxikipen eta diru-sarrera

ordainarazteko eta biltzeko eskumenari zegokionez —atxikipen eta diru-sarrera horiek 10.123,68 eurokoak ziren, bidalketa bidez eskatuak eta LEk oker ordainduak ZAEAr—.

9.- 2021eko uztailaren 9an, ZAEAk idazki bat bidali zion GFARI, jasotako inhibizio-errekerimenduari uko egiteko. Era berean, erakunde eskuduntzat aitortzen zuen ZAEA, erakundeak 2016ko ekitaldian PFEZaren kontura egindako lan-etekinengatiko atxikipenak eskatzeko, zeinak Administrazio ez-eskudunean ordaindu izanaren txostenean adierazten baitziren.

10.- 2021eko uztailaren 29an, GFAk gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzordean LE zergapekoari zegokionez, 2016ko ekitaldian PFEZaren konturako atxikipen eta sarrera jakin batzuk ordainarazteko eta biltzeko eskumenari zegokionez —orotara, 10.123,68 euroko zenbatekoa—.

Gatazka hori prozedura arruntari jarraituz izapidetu da. Hori dela eta, bete egin da Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak alegazioak egiteko eta dagozkion frogak eta dokumentazioa aurkezteko eta proposatzeko izapidea; horrekin batera, espedientearen berri eman zaie prozedurako interesdun guztiei. Horren emaitza espedientearen jaso da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoari jarraikiz, zeinak Arbitraje Batzordearen funtzioak ezartzen baititu:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Zergak ordainarazteari dagokion araudi aplikagarria.

Hauxe dio Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 7.Bat.b) artikulua:

«Bat. Lan-etekinak direla-eta egiten diren atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskuduna den foru-aldundiak eskatuko ditu, zeinek bere araudia betez:

(...)

b) Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen araubide publikoetatik hartzen diren pentsioen, hartzeko pasiboen eta prestazioen etekinak, baita Enpleguko Institutu Nazionaletik, montepio eta mutualitateetatik, enplegua sustatzeko funtsetatik, pentsio-planetatik eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeetatik datozenak ere, eta enpresen eta beste erakunde batzuen prestazio pasiboak, baldin eta jasotzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago».

Bestalde, Ekonomia Itunaren 12. artikuluan, hauxe adierazten da konturako ordainketen eraginkortasunari dagokionez:

«Jasotzailearen errentaren gaineko zerga likidatzeko orduan, lurralde batean zein bestean egin diren konturako ordainketek balioko dute. Baina horrek ez du esan nahi, ordainketa horiek eskudun ez den administrazioari eginda ere, beste administrazioak berari dagokion kopurua jasotzeari uko egin behar dionik; azken horrek kopurua emateko eskatu ahal izango dio sarrera jaso duen administrazioari».

Beraz, eskumenik ez duen administrazioan sartutako atxikipenek 2016ko ekitaldiko PFEZaren ondorioetarako balio dute, nahiz eta haren eskumena beste administrazio bati dagokion. Hala, PFEZ ordainarazteko eskumena duen administrazioak erreklamatu ahal izango ditu eskumena ez duen administrazioari ordaindutako atxikipenak.

3.- Gatazkaren xedea eta abstentzio-betebeharra.

ZAEAk alegatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak urratu egin duela Ekonomia Itunaren 66.Bi artikulua; izan ere, 2021eko maiatzaren 25ean ZAEAk GFaren aurka 30/2021 gatazka jarri ondoren, GFAk ez zion eskatu behar inhibizioa ZAEARI.

ZAEAREN ustez, 30/2021 gatazkaren xedea gatazka honen xede bera da zehazki, hau da, LE erakundeak egindako PFEZaren konturako atxikipenak ordainarazteko eskumena —2016ko ekitaldian pentsioen eta hartzeko pasiboen ondoriozko lan-etekinei zegokienez egindakoena, alegia—.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ustez, alabaina, berak planteatutako 61/2021 gatazkaren xedea ez dator bat ZAEAk planteatutako 30/2021 gatazkaren xedearekin. Lehenengoa Gipuzkoako Foru Aldundiak erreklamatu duen zenbatekoari buruzkoa da (10.123,68 euro), zeina oker ordaindu baitzitzaion Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, eta bigarrena, berriz, GFARI oker ordaindu zaizkion eta ZAEAk erreklamatu dituen 2016ko lehen hiru hiruhilekoen atxikipenen balizko preskripzioari buruzkoa. Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiak ukatu egiten du Ekonomia Itunaren 66.Bi artikulua urratu izana.

ZAEAk planteatutako 30/2021 gatazka 2021eko otsailaren 1eko baiespen partzialeko idazkiaren aurka jarri zen. Idazki hartan, Gipuzkoako Foru Aldundiak ezetsi egin zuen ZAEAk egindako eskaera, LE erakundeak 2016ko ekitaldiko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoei zegozkien zenbatekoak Gipuzkoako Foru Aldundiari ordaindu izanagatik; izan ere, preskribatutzat jo zuen ZAEAREN aldeko kreditu-eskubidea.

Hori da 30/2021 gatazkaren xedea, GFAN guztira sartutako atxikipenak, 24.403,20 eurokoak eta 2016ko ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoei zegozkienak,

zerga-egoitza lurralde erkidean duten hartzaileei eginikoak eta Gipuzkoako Foru Aldundiari oker ordainduak.

Aldiz, gatazka honen xedea da LE erakundeak Zerga Administrazioko Estatu Agentzian bidegabeki sartu eta orain Gipuzkoako Foru Aldundiak erreklamatzeko dituen atxikipenen zenbatekoa, zerga-egoitza Gipuzkoako Lurralde Historikoan duten hartzaileei egindako atxikipenak baitira.

Hau da, nahiz eta bi kasuetan LE erakundeak 2016ko ekitaldian egindako lan-etekinengatik atxikipenak izan —erakundeak hartzaile jakin batzuei pentsioen eta hartzeko pasiboen ondoriozko lan-etekin gisa ordaindutako zenbatekoen gainean—, hartzaile desberdinak dira, batzuk lurralde erkideko ohiko egoiliarrak (30/2021 gatazka) eta beste batzuk, berriz, bizilekua Gipuzkoan dutenak (61/2021 gatazka).

Ohiko bizilekua lurralde erkidean duten hartzaileei dagokien GFAn behar ez bezala sartzeak (30/2021 gatazka) administrazio arteko kreditu publikorako eskubidea sortuko lioke ZAEARI; aldiz, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez luke halakorik Gipuzkoan ohiko bizilekua duten hartzaileei dagokien zenbatekoa ZAEAn bidegabeki ordaintzeagatik (61/2021 gatazka).

Horrenbestez, Arbitraje Batzorde honek ondorioztatu du ez dela urratu Ekonomia Ituneko 66.bi artikulua, ulertzen baitu gatazka-objektuak ez datozela bat.

4.- Egintza propioen doktrina.

GFAk uste du gatazka honetan aplikagarria dela «egintza propioen doktrina»; izan ere, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak onartu zuen, bai 2020ko urriaren 19ko Administrazio ez-eskudunean sartzeari buruzko txostenean, bai 2021eko apirilaren 27an jakinarazitako ukapen akordioan, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola 10.123,68 euroko zenbatekoa ordainarazteko eskatzea, ohiko bizilekua Gipuzkoan duten zergadunei egindako atxikipenei dagokienez.

ZAEAREN ustez, alabaina, kasu honetan ez da aplikatzekoa Gipuzkoako Foru Aldundiak alegatutako egintza propioen doktrina, ez baitu eraginik interes

publikoari lotutako aurretiazko egintzaren ondorengo jokabideak direnean, administrazio-ahalen eremuan gertatzen den bezala.

Auzitegi Gorenaren 2016ko ekainaren 22ko 2972/2016 Epaiak ezartzen duenari jarraikiz (ECLI:ES:TS:2016:2972), konfiantza legitimoa babesteko eta egintza propioengatiko loturak bi oinarri behar ditu:

- Egintza propioak ikuskapen-jarduera oso baten ondorioa izan behar du, benetakoa edo potentziala, eta, hala, eragiketa bat kalifikatzean, Administrazioak datu guztiak izan behar ditu, inolako elementu ezezagun edo ezkaturik gabe.
- Ez da existitu behar gerora sortutako datu garrantzitsu berririk.

Ildo horretan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak, egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak egin ondoren, LEri proposatu zion konpentsatzea Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatutako 10.123,68 euroko zenbatekoa, ZAEAk GFari erreklamaturako zenbatekoarekin, atxikipen horiek GFari ordaindu ondoren lurralde erkidean bizi direla egiaztatzen duten hartzaileengatik (24.403,20 euro). Horrek adierazten du, ezinbestean, ZAEAk aitortu duela GFaren aldeko zuzenbide publikoko kreditua konpentsazioa jaso aurretik.

5.- Eskubidea preskribatzea.

Azkenik, Administrazioen arteko kredituak aitortzeko eskubidearen balizko preskripzioari dagokionez, adierazi behar da 61/2021 gatazka honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatutako atxikipenak ZAEAn sartu zirenetik ez direnez igaro 4 urte edo gehiago, ez dagoela preskribatuta Gipuzkoako Foru Aldundiak ZAEari eskatutako zuzenbide publikoko kreditua.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1.- Aitortzea Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumena duela PFEZaren konturako atxikipenak eta sarrerak ordainarazteko eta biltzeko, LEk 2016ko ekitaldiko

pentsio eta hartzeko pasiboengatik ordaindutako zenbatekoen gainean —orotara 10.123,68 euroko zenbatekoa—, ekitaldi horretan ohiko bizilekua Gipuzkoako Lurralde Historikoan duten hartzaileei dagokienez.

2.-Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatuko Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta LERI.

Sin.: Violeta Ruiz Almendral.

Sin.: Sofía Arana Landín.

Sin.: Javier Muguruza Arrese.